

getxoBerri



Getxo

bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1443 zb.

www.getxo.eus

getxoberri@getxo.eus

Otsailak 16

>> Otsailak 26

2017

/ Nabarmentzekoak

- > GINTONICen kontzertua Neguko Bidaia zikloan (3. or.)
- > 445.000 bat kg inauste-hondar pilatu zituzten iaz etxez etxeko bilketa eta udal lorezaintza zerbitzuek (4. or.)
- > Marcos Morales, arraun-ergometroko Munduko txapelketan: brontzea banakakoan eta urrea taldekoan (4. or.)



Getxotik sentsibilizazio bideo-jolasak interesa piztu du hainbat tokitan (3. or.)

Liburuaren aurkezpena. Otsailak 21, asteartea, 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, Arantzazu Ametzagaren "Contraviaje: de Nueva York a Gernika pasando por Berlín".

Eskola Inauteriak. Ikasleen mozorro kalejira, 10:30etik aurrera, Romo-Areetan eta Algorta-Andra Marin.

A-
GENDA

189 lagunek parte hartu dute Getxo Txukun programan

Herritarrek 423 ekarpen egin dituzte Algortako esparru bat hobetzeko

Getxoko herritarrek, *Getxo Txukun*. Auzoz auzo, kalez kale parte-hartze izaerako programaren bitartez, 423 ekarpen egin dituzte hobekuntzak egiteko Algortako kale hauen inguruan: Bidezabal, Ollaretxe, Salsidu eta Beato Domingo Iturrate, hain zuzen. Proposamenak alor hauekin lotuta daude: irisgarritasuna; mugikortasuna; hiri-altzarien mantentze-lanak; garbiketa eta berdeguneak zaintzea; segurtasuna eta poliziaren zaintza; argiztapena; gazteen lonjak; Ogasuna eta Komunikazioa, besteak beste.

Programa honetan, Udalak 230.000€ inbertitu Herritarrek egindako ekarpenek zenbateko hori gainditu dutenez, aurreikusitako zenbait jarduera udal aurrekontuaren beste aurrekontu-sail batzuen kontura egingo dira. Imanol Landa alkateak esan du "auzoa entzun ondoren eta iradokizunak aztertu ondoren, bagaude martxan iradokizun horiekin lotuta dauden ekintza zehatzak bultzatzeko. Auzokoek badute eskura jada erantzun eta azalpen argi bat haien iradokizun eta proposamenen inguruan, aurrekontu eta egikaritze epeak ere zehaztuta".

Prozesuaren emaitzak

2016ko ekainaren 28tik uztailearen 11ra bitartean herritarren ekarpenak



jaso zituzten. Ondoren, proposamenak zenbatu, aztertu eta teknikoki baloratu zituzten.

189 lagunek parte hartu zuten programa horretan. 142 herritarrek idatzita aurkeztu zituzten ekarpenak, 27k aurrez-aurre eta 20k online. Amaia Agirre Partaidetzarako zinegotziak azaldu duenez "obra txikiatarako dagoen aurrekontuarekin auzoan egin daitezkeen hobekuntzak jaso dira".

Zenbait proposamen

Irisgarritasuna eta mugikortasuna atalean egin diren edo egingo diren jarduketek zerikusia dute eskaileren, arrapala mekanikoen edota igogailuaren mantentze-lanekin, eta Bidebarrietan, Salsidun, Kasunen, Bidebitarten, Erredentorren edo Ollarretxen egingo diren hainbat hobekuntza lanekin. *Hiri antolamenduan*, besteak beste, inguru horretako kaleak, plazak eta bidegorriak birmoldatuko dira, eta neurriak hartuko dira Sarrikobaso kalean erortzeko zorian dauden eraikinei dagokionez. Halaber, proposamenak jaso dira ondorengo gaiei buruz: hiri-altzariak, espaloiak eta kaleak garbitzea, lorezaintza, parkeak eta elkartzeko espazioak... eta zirkulazioa eta bide-segurtasuna hobetzea.

2016an Udaleko Hezkuntza arloak 575.000€ inguru inbertitu zituen

Getxoko Udaleko Hezkuntza arloak 575.000€ inguru inbertitu zituen 2016. urtean udalerriko ikastetxeetan egikaritze-egoeretan, obretan, programetan eta diru-laguntzetan, joan den urteko saileko memorian jasotzen denez. Zifra horretan ez dira sartzen beste udal departamentu batzuek ere arlo horretan egiten dituzten gastuak (Langileria, Informatika, udal eraikinak...). Getxoko Udaleko Hezkuntza Sailaren eginkizun nagusia da, legeak udalerriei esleitzen dizkien eskumenak kontuan izanik, Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak kontserbatu, mantendu eta zaintzeko lanak egitea, baita hezkuntza ad-



ministrazioarekin lankidetzan aritzea ere. Udal-eskumeneko zentroak ondorengo hauek dira: Andra Mari (Andra Mari + Saratxaga), Larrañazubi, Romo, Juan Bautista Zabala (J.B. Zabala + San Martín), Zubileta, San Ignacio, Geroa Ikastola, Gobela Ikastola, Egunsentia Haurreskola eta HHI.

Jarduketak

Gastu arrunten kapituluan –makinak konpontzea, mantentze lanak, hornidurak, gas eta gasolio kontsumoa...– 99.000€ inbertitu ziren eta *Obratan* 167.000€, gutxi gorabehera. 64.750€ esleitu zituzten *Hezkuntzarako diru-laguntzetarako* eta *Hezkuntzako gastu orokorretarako familiei emandako diru-laguntza*

115.965€koa izan zen. Beste *Programetara* 68.000€ bideratu ziren (Julio Caro Baroja BHIIn ikasteko gelak irekitzea eta Romo, Andra Mari eta Zubileta ikastetxeetan erabilera publikora irekitzeko kirol-instalazioak zaindu eta kontrolatzea eskola-ordutegitik kanpo), eta *Eskola Antzerkia eta Antzerki Jardunaldiak* egiteko 60.000€ esleitu ziren.

Getxon 2016/2017 ikasturteko eskolako erroldan 7.640 ikasle daude (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloetan), publikoetan zein pribatuetan. %51k D ereduaren ikasten du (3.939), %22k B ereduaren (1.666) eta %27k A ereduaren.

Informazio gehiago:

www.getxo.eus/educación.



OTSAILAK 16 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Gobelako haur-liburutegian, 18:00etan, "Mariolasegaz, ipuinaren mundura, hegaz" Mariolasekin. Euskaraz. 5-9 urte. Sarrera dohainik.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Teresa Mouréren "Artes subversivas para cultivar jardines" liburuari buruzko solasaldia. Sarrera dohainik.

Sinergika: bisita gidatua. 18:00etan, gaztelaniaz. Irteera-gunea: Algortako Geltokia plaza. Leku kopuru mugatua. Izen-ematea: kulturetxea@getxo.eus e-postaren bitartez.

Getxon Zuzenean. Areetako Glass tabernan, 20:00etan, Sinbanda (popa). Sarrera dohainik.

OTSAILAK 17 OSTIRALA

Bertsolariak: XVI. Abra Saria. La Ola jatetxean, Ereagan, 20:30etik aurrera, afaria eta, jarraian, bertso-saioa. Afaria: 15€. Informazioa eta izen-ematea hilaren 14ra arte: albegetxo@gmail.com eta tel. 605 70 43 85.

Haur Tailerra. Bizikidetzaz aniztasunean. Villamonteko liburutegian, 18:00etatik 19:00etara. Euskaraz eta gaztelaniaz. 4-6 urte (heldu batek lagunduta). Leku mugatua. Izen-ematea: Tel.: 94 431 92 81 - villamonte.liburutegia@getxo.eus edo 94 436 07 15 - info@asociacionmatiz.org.

Zine Kluba. Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Tarde para la ira" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: Raúl Arévalo. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

OTSAILAK 18 LARUNBATA

Neguko Bidaia. Kontzertu didaktikoen zikloa. Gintonic (rocka), 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrera: 5€ (3€ zentzoko ikasleentzat).

Sinergika: bisita gidatua. 12:00etan, gaztelaniaz. Irteera-gunea: Algortako Geltokia plaza. Leku-kopurua mugatua. Izen-ematea: kulturetxea@getxo.eus e-postaren bitartez.

Haur Tailerra. Bizikidetzaz aniztasunean. Villamonteko liburutegian, 12:00etatik 13:00etara. Euskaraz eta gaztelaniaz. 4-6 urte (heldu batek lagunduta). Leku mugatua. Izen-ematea: Tel.: 94 464 04 68 - gobela.liburutegia@getxo.eus edo 94 436 07 15 - info@asociacionmatiz.org.

OTSAILAK 19 IGANDEA

Haurrentzako zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El pincel mágico". Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€.

OTSAILAK 20 ASTELEHENA

Odol-ateratzea. Algortako Geltokia plazan. Goizean eta 16:30etik 21:00etara.

Mugarrik. Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkarteak. Hitzaldia: "Visión y posturología". Hitzlari: Mikel Elías (Optometrista-Posturologoa). 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

OTSAILAK 21 ASTEARTEA

Liburuaren aurkezpena. Arantzasu Ametzagaren "Contravíaje: de Nueva York a Gernika pasando por Berlín" liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Algortako Kultur Etxean. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

OTSAILAK 22 ASTEAZKENA

Gizatiar. Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Feminismos árabes e islámicos". 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

OTSAILAK 23 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan. Goizean eta 16:30etik 21:00ak arte.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Amada Riosen "Mi ojo izquierdo" argazki-erakusketa. Martxoaren 8ra arte.

Getxon Zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Tom Boyle (pop-rocka). Sarrera dohainik.

OTSAILAK 24 OSTIRALA

Eskola Inauteriak. Ikasleen mozerro kalejira, 10:30etik aurrera, Romo-Areetan eta Algortako Andra Marin. **Zine Kluba.** Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Yo, Daniel Blake" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: Ken Loach. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

AJANE. Bazkideentzako deialdia: Ohiko Batzar Nagusia, Algortako Tourseko San Martin elizan, 18:00etan.

OTSAILAK 25 LARUNBATA

Inauteriak Romon. Santa Eugenia plazan, 12:00-14:30, haurrentzako joko eta tailerrak, eta 13:30-15:00, umeen mozerro txapelketa. 18:00etan, Cervantes plazan txokolatada; 18:30ean, kalejira eta mozerro desfilea, batukadarekin; 20:00-21:00, haur berbena eta 22:00etan, erromeria Urrats taldearekin, Santa Eugenia plazan.

Neguko Bidaia. Kontzertu didaktikoen zikloa. Blas Fernández "Urbanetniko" (jazz), 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrera: 5€ (3€ zentzoko ikasleentzat).

Ipuin-kontaketa **haurtxoentzat:** **Storytime.** Getxo Elkartegian (Ogoño,1. Areetan), 10:30ean eta 11:30ean, Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik, "Where do you live". Ingeles. Adina: 10-36 hilabete. Sarrera: Kids&Us Getxon eta Kids&Us Algortan jaso beharreko gonbidapenez. Leku mugatua.

OTSAILAK 26 IGANDEA

Inauteriak Andra Marin. 11:00etan kalejira Itxas Argiaren eskutik; 12:30ean, umeentzako jolasak; 17:00etan, puzgarriak Geroa ikastolan, eta 19:00etan, txokolatada.

Magia ikuskizuna. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Magic spectacular", Mago Sunen eskutik. Euskaraz. Adin guztientzat. Sarrera: 5€.



Datuak sektoreko batez bestekoaren azpian daude

Getxoko Udalak laneko ezbehar-tasa baxua du

Getxoko Udalean 2016. urtean egon zen laneko ezbehar-tasa %23,71koa izan zen, hau sektorearen batez bestekoa baino askoz ere baxuagoa da (%39,60). Datu horiek Getxoko Udaleko 18 lan zentroetan jaso diren in-tzidentziak dira, bertan epe horretan 464 langilek egiten zuten lan.

Joan den urtean 30 ezbehar izan ziren (horietariko 4 *in itinere*).

Horietariko 19k ez zuten laneko baja behar izan. Erregistratu ziren 11 bajek 555 lanegun galtzea eragin zuten.

Laneko arriskuen prebentzioa

2010ean Getxoko Udalean Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua martxan jarri zenetik, laneko ezbehar kopurua nahiko jaitsi da, baita istripu horien

larritasuna ere. Galdu ziren lanegunen batez bestekoa murriztu da 2006an 1.200 izatetik 2010ean 555 egun izatera pasatu baita.

Ezbeharrak saihesteko etengabeko lanean, Udala, langileen parte-hartzearekin batera, arriskuak prebentzeko kultura bultzatzen ari da erakundearen egiten diren lan jardura guztietan eta hori egiten du honako hau eragin nahi duen programa baten bitartez: "laneko arriskuak prebentzeko langile guztien artean partekatutako jardun bide egokiak", udal iturriek adierazi dutenez.

Lotarako arazorik?

Lo zailtasunei aurre egiteko teknikak lantzeko taldea osatuko da Algortako Bidezabalgo eta Alangoko Osakidetzaren osasun zentroetan, Familia eta Komunitate-Areetako Irakaskuntza Unitateak antolatuta. Lotarako arazorik? izeneko ekimena lo arazoetan adituak diren medikuek emango dute, 18 urtetik gorako eta aipatutako osasun zentroetan erroldatutako pazienteentzat.

Talde hauetan parte hartu ahal izateko, interesatuek beraien medikuengana informazio bila jo beharko dute.

Izen-ematea zabalik dago, eta talde lanketa maiatzean abiatuko da eta ekainera arte martxan izatea aurreikusita dago.



Txileko Turismo Jasangarriaren ordezkariaren bisita

Txileko Turismo Jasangarriaren zuzendaritza-batzordeko ordezkari bat Getxon izan zen astelehenean, otsailak 13, Euskadin eta estatuko beste puntu batzuetan egiten ari den bisiten egitarauaren barruan. Bisitaren helburua da hainbat helmuga adimendun kudeaketa eredu ezagutzea, baita Turismoa ikertzeko zentroak ere. Irantzuri Uriarte Turismo zinegotziak harre-ra egin zion ordezkariari. Ordezkariek interes handia erakutsi dute gure udalerrian Sustapen Ekonomikorako arloak (Turismo eta Getxolan) egiten duen lanean. Txileko Turismo Jasangarriaren zuzendaritza-batzordea erakunde publiko-pribatua da eta Turismo arloan espezializazio adimendun programa estrategikoan lan egiten du.

Euskadiko Odol Emoileen elkarteak deia egin du

Euskadiko Odol Emoileen elkarteak odola eman duten odol emaile guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie, euren emaldi altruista eta solidarioari esker azken hiru asteetan bertoko ospitaletan izan duten odol eskaera handiago honi erantzun eta erreserbak apurtxo bat hobetu ahal

izan dituztelako. Era berean, berriro ere ohiko emailei dei egin nahi die, eta emaile ez direnak animatu, odola ematen jarrai dezaten, dauden erreserbak hobetzen jarraitzeko eta EAEko gure ospitaletan datozen hilabeteetan handitzen joan daitekeen odol osagaien eskaerari erantzuteko.



GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK OTSAILAREN 16TIK 26RA ARTE

Egunero:

22:00-09:00: ALZOLA. Arene 4, Algorta.

Hurrengo farmaziak asteburuetan ere zabalik egongo dira:

18 (LR) 09:00-22:00: PLATERO. Eduardo Coste z.g., Areetan. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoian), Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

19 (IG) 09:00-13:30: ARRIOILA. Amaia 29, Areetan.

09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

25 (LR) 09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoian), Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

26 (IG) 09:00-13:30: MOLINA. Adiskidetasunaren kalea 13, Areetan.

09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

- **Neska prest dago** bulegoak edo kontsultategiak garbitzeko. Tel.: 678 36 63 79.

- **Lan bila nabil.** Etxeko lanak, ume eta adinekoen zaintza. Edozein ordutegian, orduka edo barneko. Tel.: 600 391 090.

- **Ingelesko eskolak udan.** Mintzapraktika eta gramatika. Bertakoa ez den irakaslea. Tel.: 94 496 30 83. Mercedes.




Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

Getxotik sentsibilizazio bideo-jolasak interesa piztu du hainbat tokitan

Munduan giza eskubideen egoera eta udalerrian lan egiten duten Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek lana ezagutzeko ahalbideratuko duen *Getxotik* sentsibilizazio bideo-jolasak piztu du Europako Lankidetzan erreferente den sarearen sarearen *Platfoma* aldizkari elektronikoaren interesa. Entitate horrek Euskal Fonda euskal entitate kooperanteen elkartean partaidetza du, Kataluniako, Austriako, Frantziako, Italiako, Suediako eta Commonwealtheko kideetako homologoen batera. Bere helburuak dira Europako erakundeek mezu bakarri helaraztea garapen inguruko politikak zehazterakoan, sare lana eta Europako udal eta erregioen parte hartzea sustatzea eta gizarte zibilarekin harremanak sendotzea. Bestalde, udalerriko KZguneak, teknologi berriei buruzko heziketa zentroek ere egun jolasaren berri ematen dute eta laster Interneteko trebatzean erabiliko dute.

Getxotik bideo-jolasa

Bideo-jolasa Udalak antolatutako Getxotik Mundura Mundutik Getxora topaketen aurreko edizioaren berritasunetako bat izan zen, eta bere sortze



prozesuan Garapenerako Lan Taldeen kideek hartu zuten parte, udal sail batzuekin batera. HTML5 formatuan (<http://getxotik.org>) diseinatuta, zuzenean sar daiteke jolastera ordenagailu, tablet edo eskuko telefonotik, deskargatu beharrik gabe. Gazteleraz, ingelesez edo euskaraz jolas daiteke, *Point & Click* sistemaren bidez, eta 8 urtetik gorakoentzat dago pentsatuta. Jokalariak giza laguntzarako bilketa urgentea osatzeko elementuak aurkitu beharko dituzte. Pantaila bakoitzean egin beharreko lanak bete ondoren, jokalariek osasunari, hezkuntzari eta abarri lotutako eskubideen egoerari eta generoari buruzko informazioa irakurri ahal izango dute eta baita lanean ari diren udalerriko Gobernu Kanpoko Erakundeek buruzkoa ere.

ABRA saria aurten La Ola jatetxean

Urtero bezala, Euskal Herriko sei bertsolari gaztek parte hartuko dute ABRA sarian, oraingoan otsailaren 17an, ostiralean, bertso-afari baten bitartez, ALBEk Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Bertso-afaria Ereagako La Ola jatetxean izango da, 20:30ean hasita (15€).

XVI. edizioa izango da eta parte hartuko duten bertsolariak dira Unai Mendiburu (Algorta), Txaber Altube (Abadiño), Maider Arregi (Oñati), Joanes Illarregi (Leitza), Ane Beloki (Legazpia) eta Peru Abarrategi (Aramaio). Epaimahaia



Joseba Santxo getxotarrak, Nerea Bruñok eta Martin Aramendik osatuko dute eta gai-jartzailea Beñat Vidal izango da.

ABRA Saria 2002an sortu zen Euskal Herriko bertsolari gazteei ospea eman eta plazarako jautsian lagundu nahirik, eta ordutik urtero jokatu ohi da. 2015ean, ALBEren 35. urteurrena dela eta, ordura arteko txapeldunek *makila* jokatu zuten, eta Azpirozek eskuratu. Dagoeneko bertso-egutegian ondo finkatutako bertso-sariketa da Abra Saria.

Informazio gehiago: www.albe.eus.

LABURRAK

Egizuren jarduerak. Hilabete honetarako Egizu euskara elkarteak antolatutako jardueren artean, ostiralean, otsailak 17, Villamonteko Kultur Etxean, 17:30ean, *Kamishibai*, japoniar tekinarekin, ipuinak kontatzeko saioa izango da, Iratxe Unzurrunzagaren eskutik. Igandean, otsailak 19, Bilboko Azkuna Zentroan dagoen *Uhartearen altorra*, haur eta gazteentzako literatura-erakusketara bisita gidatua egingo da, 18:00etan. Otsailaren 23an, ostegunean, 19:30ean, Lourdes Oñederrak bisitatuko du Irakurzaleen Txokoa *Intemperies (babes bila)* liburuaz mintzatzeko Villamonteko Kultur etxean. Izen-emateak eta informazioa: sendi@egizu.eus /644 277 155.

Musika, filmatuko dela!

Aktual Films izenekoak Getxon luzemetraia baten proiektua abian jarri du eta horretarako, Stereoonik Getxoko tokiko musika sustatzeko kultur elkarteari eskatu dio musika-gaiak batzeko pelikulen soinu banda osatzeko. Deialdia edozein estilotarako eta hizkuntzatarako dago zabalik. Talde eta abeslari getxotar interesatuek datorren otsailaren 28ra arteko epea izango dute, beren "hit"ak info@stereoonik.com helbidera bidaltzeko. Informazio gehiago: <https://www.facebook.com/asociacionstereoonik/>

Garramblada ikuskizuna Utopian zentrorra (Errotatxu poligonoan) itzuliko da larunbatean, otsailak 18, 20:00etan, artistek beren lan hasiberriak aurkeztu eta publikoak nola hartzen dituen ikusteko. Artista getxotarrekin beren kezka eta estetika partekatzeke eguna izango da. Gainera, hurrengo egunean, igandean, hilak 19, Tukutu Market izango da, 11:00etatik 15:00etara, beren postuekin eta tailerrekin. Hilabete honetan hurrengoak izango dira: txalaparta (12:00-14:00), makillajea (12:30-14:00), kosmetika naturala (11:00-13:00), nekazal-ekologia (12:00-13:30) eta sabeleko dantza (11:00-12:30).



GINTONICen kontzertua Neguko Bidaia zikloan

Musikari hauek osatzen dute GINTONIC: Mario Clavell Larrinaga (flauta eta EW), Aurrene Núñez (teklatuak eta ahotsa), Ricardo Cantera (bateria) eta Marcelo Hormaechea (baxu elektrikoa). Taldeak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, hilak 18, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean. Rock progresiboaren eta jazzaren artean, haien musikaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: atxikimendua doinuari, moldaketa konplexuak eta ganbera-musikaren ohituraren erroterikoa eta aniztasun-bilaketa tinbre eta soinu-efektuetan sintetizatuz, pedalen, filtroen... bitartez. Errezitaldia Neguko Bidaia zikloaren barruan dago eta sarrera 5€ da.



"La trilogía de la ambición del poder" aurkeztu dute

Gaspar Antón Rodríguez aurkeztu berri du Algortako Udal liburutegian *La trilogía de la ambición del poder*. Dibulgazio-liburu hau heziketa-entsegu bat da eta, egileak azaldu digunaren arabera, asmoa da "kontzeptu ekonomiko, historiko eta sozialen azterketa erraza egitea mundu globalizatuan eta ingurugiro aldakorrean elkarren mendekotasuna azaltzeko, non agintariak sare ekonomiko, politiko eta sozialean desagertzen diren, mugagabeko boterearekin merkatuko eta gizarteko arazoak konpontzerako orduan". ViveLibrok argitaratu du eta hau lanaren lehenengo liburua da.

Tamaina handiko hondakinen balantzea 456 tonatik gorakoa da

445.000 bat kg inauste-hondar pilatu zituzten iaz etxez etxeko bilketa eta udal lorezaintza zerbitzuek

Guztira, 444.140 kg inauste-hondar pilatu ziren 2016an Getxon, etxez etxeko bilketa eta udal lorezaintza zerbitzuen bitartez. Datu horrek, bolumen handiko hondakinen gaineko balantzearekin batera -456 tona baino gehiago bildu dira-, on handia egiten dio ingurumenari; eta halaber, Getxo gehiago hurbiltzen du bere helburura, alegia, %50eko mailara iristea 2022an, hiri hondakin solidoen (HHS) gaikako bilketan, Europar Batasuneko araudia aintzat hartuta.

"Etxez etxeko inauste bilketa eta bolumen handiko hondakinen gaineko iazko balantzeko datuek adierazten digute bide onetik goazela Getxoko Udalak erabaki duen erronka lortzeko; eta haren apustua berresten dute, alegia, birziklatzeko kultura gizarteko esparru guztietara zabaltzea, bai arlo pertsonalean bai kolektiboan. Eta helburu eta apustu horrek guztion kolaborazioa behar du, erakunde publikoena, saltokiarena, ostalaritzarena eta hiritar beraiena, besteak beste", aipatu du Joseba Arregi Hirigintza zinegotziak.

Iaz bildutako inauste-hondarren kopuruari dagokionez, 46.940 kg etxez etxeko bilketa zerbitzutik datoz -2015eko udan jarri zen martxan zerbitzua-; eta gainontzekoa, 347.200 kg, udal lorezaintza zerbitzutik. Oro har, kopuru garrantzitsua da, ingurumenarentzat oso mesedegarri



baita; izan ere, inausketa hondarrak konpost gisa berrerabil daitezke, lur-zoru, lorategi publiko eta pribatuak ongarritzeko.

Bestalde, tamaina handiko hondakinen (mahai, aulki, altzari, koltxoi, lanpara, eguzkitako...) inguruko balantzea dela eta, 2016an, guztira, 456.700 kg bildu ziren, hau da, 2015ean (442.081 kg) baino %3 bat gehiago. Datu hori ere garrantzitsua da ingurugiroarentzat ona baita; hots, hondakin horiek, gehienak, berre-rabili edo birziklatu egiten dira, eta, hala, zabortegira doazen hondakin kopuruak murriztu egiten dira. Hondakinak batutakoan, bereizi egiten dira beren izaeraren arabera.

Etxez etxeko inausketa zerbitzua zein tamaina handiko hondakinen alde aurretik eskatu behar dira: 94 464 43 80 telefonoaren bitartez edo udal webgunean, www.getxo.info-citi.es. 24 ordu baino lehenago zehaztuko digute eguna bota nahi dugun hondakina kalera ateratzeko. Epea ez da hiru egunetik gorakoa izango. Hondakina uzteko (atari aurreko galtzadan, eta ezin denean, hurbilen dagoen edukiontzi ondoan) ordutegia: 22:00etatik 06:00etara. Ezarritako orduan ezin bada hondakinik utzi, beti ere aukera izango da Larrañazubiko Transferentziagunera eramateko, antzinako zabortegiaren ondoan.

KIROLAK

Marcos Morales arraun-ergometroko Bostongo Munduko txapelketan: brontzea banakakoan eta urrea taldekoan

Marcos César Morales Sarmiento Raspas del Embarcadero Arraun Elkarteko entrenatzaile eta arraunlariak ezin izan du berretsi iaz arraun-ergometroan banaka lortutako munduko txapela, eta oraingo honetan brontzezko dominarekin konformatu behar izan du, 40-49 urteko kategorian. Munduko Indoor Arraun Txapelketa, C.R.A.S.H.-B. World Indoor Rowing Championship izenekoa, pasa den asteburuan jokatu da Bostongo Unibertsitateko Agganis Arenan (AEB). Moralesek 06:03.5 marka egin du 2.000 metroko distantziaren proban, eta bi segundora baino ez da lotu bai urrezko dominatik, Luke Wollenschlaeger hegofrikarrak (06:01.3) lortu duena, bai zilarrezkotik, Sam Blythek (06:01.6) eskuratutakoa.



Halere, talde mistoen kategorian, Marcos munduko txapelduna izan da hirugarren urtez jarraian. Oraingo honetan, finlandiar, amerikar eta arraunlari ukrainiar emakume batekin osatu du taldea.

Titulu berri hauek, duela egun batzuk Raspaseko arraunlariak modalitate berean, 2 km eta 500 metroko probeetan, irabazitako Europako txapelari gehitu behar zaie.

Akelarre", "Lasai" eta "Mandovi", 2017ko lehen garaileak, Abran

Mauricio Guibertek Akelarre (Regata klasa), Gonzalo Bernalen Lasai (Gurtzontzi klasa) eta Ramón Zubiagaren Mandovi (J 80 klasa) dira belako I. Sariketa Sozialaren aurreneko irabazleak. R.C. Marítimo del Abra-R.S.C. elkartearen lehiaketa egutegiko aurtengo lehenengo proba da, aipatutako klaseetako ontzientzat. Lehen klasean, Getariako Náuti-



coko Akelarre nagusitu zen sailkapen orokor absolutuan, hiru asteburutan erregularrena izan zena. Gonzalo Arnalen Lasai izan zen txapelduna Gurtzontzi klasean, 9 milia inguruko azken ibilbidea irabazi eta gero. Eta J 80 klasean, Ramón Zubiagaren Mandovi ontziak lidergoari eutsi zion beste garaipen partzial bati esker, garaipena 6 punturekin ixteko.

Getxo Enpresak hainbat ikastaro antolatu ditu

Getxo Enpresa elkarteak urteko lehen seihilekorako antolatu duen heziketa planaren berri eman du. Enpresentzat eta merkatariarentzat interesgarria izan daitezkeen hainbat ikastaro antolatu ditu, besteak beste, diruzaintza planifikatzeko edo negozioa kudeatzeko doako tresna informatikoei buruzkoak.

Heziketa hitzaldiak eta ikastaroak doakoak izango dira Getxo Enpresa elkarteak bazkideentzat, eta gehienak jarduera ekonomikoaren alor guztientzat izango dira, hau da, merkatari-tzarako, ostalaritzarako eta zerbitzuetarako.

Otsailaren bigarren hamabostaldian izango diren saioen artean hurrengoak daude: nola negoziatu finantza-entitateekin, zein salneurri estrategia (pricing) erabili, nola izan *personal shopper* bezeroekin, ahozkoa ez den komunikazio-teknikak, interneten edo *mindfulness* (erlaxazio edo estresa kontrolatzeko teknikak enpresan ongizatea sustatzeko) sistemen bitartez nola aurkitu bezero berriak. Gehienak eguerdikoko ordutegian izango dira, partaidetza errazteko. Informazio gehiago: www.getxoimpresa.com.